

GUZURMAIKO



Parte-hartzea, udalaren oinarria



Interesdun telefonoak

Otxandioko Udala	945 45 00 20	Ayto. de Otxandio
Medikuan zita hartzeko	945 45 50 17	Concertar cita
Herri Eskola	945 45 01 01	Colegio Público
Haurreskola	945 45 09 97	Haurreskola
Liburutegia	945 45 05 17	Biblioteca
Nagusien egoitza	945 46 14 03	Residencia de ancianos
Larrialdiak	112	Urgencias
Durangoko ertzain etxea	94 466 93 00	Comisaría Ertzaintza

Emakumeenganako indarkeria sexistaren informazio zerbitzua	900 840 111	Servicio de información a la víctima de violencia sexista
--	-------------	---

Autobusak/Autobuses

Bizkaibus (Bezeroentzat)	902 22 22 65
La Unión	945 25 84 00

Ordutegiak

- Udaletxeko bulegoa
Astelehenetik ostiralera 8:00-15:00
- Gizarte laguntzailea / Asistente Social
Azteazkena 8:30-14:30 (ordua eskatzeko deitu aldez aurretik)
- Arkitektoa / Arquitecto
Ostegunetan (ordua eskatzeko udaletxera deitu aldez aurretik)
- Liburutegia / Biblioteca
Asteartetik ostiralera 16:30-20:30
Larunbata 10:00 - 13:00

Helbide elektronikoak

alkatetza.otxandio@bizkaia.org
idazkaritza.otxandio@bizkaia.org
administrazio.otxandio@bizkaia.org
arkitekto.otxandio@bizkaia.org

ZUEN IRITZIA PLAZARATZEKO HURRENGO HELBIDEETARA
JO DEZAKEZUE

E-mailez: idazkaritza.otxandio@bizkaia.org
Posta arruntaz: Plaza Nagusia, 1
48210 Otxandio

Kontzejupeko buzoia

GUZURMAIKO



Argitaratzailea: Otxandioko Udala
Egilea: Otxandioko Udala / Arteman komunikazioa
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal
Ale kopurua: 600
Lege gordailua: SS-1749-2010



Otxandioko Udala
Plaza Nagusia, 1
48210 Otxandio
Tf: 945 450020
945 450503
Fax: 945 450362
www.otxandio.net



AURKIBIDEA

<i>Editoriala</i>	3
<i>Gaurko gaia</i>	4-5
<i>Herri-ola</i>	6-7
<i>Udala-Batzordeak</i>	
<i>Ekonomia</i>	8
<i>Kultura / Hirigintza</i>	9
<i>Komunikazioa /</i> <i>Giza eskubideak</i>	10
<i>Berba gitxitan</i>	11



UDAL GOBERNU TALDEA

Hasitako bidetik aurrera

Legegintzaldi berria eta udal talde berria. Ez gara aurkezpenetan luzatuko, herri honetan denok dugu-eta elkarren berri. Lekukoa jasotzeaz batera nabaritu dugu hartu dugun erantzunkizunaren pisua. Herrigintzaren erronka potoloa da gero! Baina ba omen dago errezeta bat, bi osagai dituen: gardentasuna eta parte-hartzea. Hori da herritarroi eman genizuen hitza eta berretsi egin nahi dugu.

Ohitura onak jarraituz, urtean hiru aldiz kaleratuko dugu *Guzurmaiko*, eta bertan, udaleko kontuen berri emango dugu, aldizkari batek duen leku mugek baldintzatuta beti ere. *Guzurmaiko*-z gain, udal webgune berri-tuan (www.otxandio.net), astero informazio gaurkotua aurkituko duzue, galdera zuzenak egiteko aukerarekin.

Garai berriak zabaldu dira. Bakea eta normalizazio politikoa datoz ate joka. Elkar-rrizketa, eztabaida eta ideien konfrontazioa izango dira partidaren joko arauak. Denok jotzen dugu, ez dago supleririk. Prozesuak

aurrera egin dezan gu guztion bultzada behar du, baita udal honena ere.

Baina krisi garaiak ere badira, herriko langabetuek ondo dakiten bezala. Udal kudeaketari zuzenean eragiten dio krisi ekonomikoak, eta egokitzen jakin behar dugu zorrak irentsi ez gaitzaten. Baliabide ekonomikoen kudeaketa are eta doi eta arrazionalagoa egin beharko dugu. Baina politika ere aldarrikatu nahi dugu, merkatu interes espekulatzailak eta beraien menpeko politikariek sortu baitute krisi hau, eta erabaki politiko sakon eta ausartak beharko baitira bertatik ateratzeko. Politika erreskatatu behar dugu eta interes alderdikoi eta politikari profesionaletatik aldentu. Politika behetik gora egiteko garaia da, herritarren zuzeneko parte-hartzearekin, gizarte justuago, solidarioago eta iraunkorra- go bat eraikiz.

Konkreziara joz, Otxandion ez gara hutsetik abiatzen, Herri-ola egitasmoa herritar ugariren parte-hartzearekin ernaldtu genuelako. Norabidetze estrategikoaz gain, soluzio zehatzak proposatu dira Otxandion garapenerako. Bide horretan sakonduko dugu.

Amaitzeko, Gabonen atarian gure artean ez daudenak ekarri nahi ditugu gogora berriro, eta baita beraien senideak ere. Ondo pasau eta urte berri on!

“Herri-ola egitasmoa herritar ugarirekin ernaldtu genuen. Otxandion garapenerako, norabidetze estrategikoaz gain, soluzio zehatzak proposatzen jarraituko dugu”.

Caminando en la misma dirección

Nueva legislatura y nuevo equipo de gobierno. Somos conscientes de la responsabilidad, pero existe una receta infalible con dos ingredientes ineludibles: transparencia y participación. Publicaremos esta revista, Guzurmaiko, tres veces al año para informaros de lo que se esté trabajando en el Ayuntamiento y actualizaremos semanalmente la web municipal www.otxandio.net.

La crisis económica que afecta a tantos vecinos, también se hace notar en la gestión del Consistorio, que será más racional aún. No obstante, tenemos claro que la verdadera razón de la crisis radica en la especulación financiera y la subordinación de la política a los intereses del mercado. Por eso, apostamos por recuperar la política en mayúsculas, la que se hace desde abajo. En esa línea se puso en marcha Herri-ola, senda en la que seguiremos trabajando.

PARTE-HARTZEA,

UDALAREN OINARRIA

OTXANDIOKO UDAL TALDEAK UDALERRIAN PARTE-HARTZEA BERMATZEKO DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEAN SAKONTZEN 2011-2015 IZENENKO PROIEKTUA PRESTATU DU.

UDAL TALDEKOEN ESANETAN, DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA HIRU PUNTU NAGUSITAN OINARRITUTA DAGO: PARTE-HARTZEA, GARDENTASUNA ETA ERAGINKORTASUNA. HALA, ONDORIOZTATU DUTE GARDENTASUNIK GABE EZ DAGOELA INFORMAZIOARIK, ETA INFORMAZIO BARIK, EZIN HERRITARRAK ERABAKIETAN PARTAIDE EGIN. HORREZ GAIN, BENETAKO ERAGINKORTASUNIK EZ BADAGO, HERRITARREN EDO PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN HARTUTAKO ERABAKIAK INORA HELTZEN EZ DIRELA PENTSA DAITEKE, ETA HORREK PARTE-HARTZEKO GOGOEA EKIDITU DEZAKE. HORTAZ, EZINBESTEKOA DA HIRUKI HORI BERMATZEA.



Udal taldeak bi motatako parte-hartzeak bereiztu ditu: organikoa eta ez-organikoa. Organikoa da organoetan egiten dena, erakundeetako organigramen barruan egiten dena. Eta ez-organikoa, hortik kanpo, erakundeekiko, baina erakundeen egituren barruan egiten ez dena.

Aurreko legegintzalditik, Otxandio-ko Udalak herritarrei erabaki maila guztietan parte hartzeko aukera ematen die. Herritarron Kontseiluan, esaterako, erabaki estrategikoak eztabaidatzen dira, etorkizunera begira zeresan handia izango dutenak eta herritar guztiei eragiten dietenak.

Hortik kanpo, udalak zailtasunak ditu herritarrak parte-hartze organoetara erakartzeko. Udal ordezkariak ikertu ahal izan dutenez, herrian udalak parte hartzeko aukerak eskaintzen dituenaren kontzientzia subjektiboa badago eta udalaren ahalegin hori herritarrek eskertzen dute. Hala ere, herritarrek ez dute parte hartzeko pau-

soa ematen. Horren atzean askotariko arrazoiak daude: kultura parte-hartzailerik falta, batzarren dinamikaren gaineko ezagutza eza, norbere buruarengan konfiantza txikia...

Batzorde irekiak

Herritarrak erakartzeko eta parte-hartzea bermatzeko, udal taldeak organo berri bat sartu du erakunde organigraman: batzorde irekiak. Aldaketa hau ezartzea adostu dutenek uste dute



Zinegotzi bakoitzak informazio zehatz bat herritar talde batekin konpartitzea egoki ikusten duenean edo hauen ekarpenak jaso nahi dituenean batzorde irekiak deituko ditu.

herritarrek gertukoaren duten esparruetan, unitate txikietan, esku hartzea errazagoa dela. Hala, zinegotzi bakoitzak informazio zehatz bat herritar talde batekin konpartitzea egoki ikusten duenean edo hauen ekarpenak jaso nahi dituenean, nahiz eta batzordeak berez irekiak diren, ahalegina egin dezake herritar aktibo eta interesdunak identifikatu eta horiek zein herriko elkarteak gonbidatuta, parte-hartze sareak osatzeko. Gainera, herritarrek esku hartu izanaren emaitzak bere horretan ikusi ahal ditzaten oso garrantzitsua da batzarren helburua argia izatea eta beharrezko diren gailu guztiak ahalbideratzea.

Bestelako parte-hartzea, teknologia berriekin

Parte-hartze ez-organikoari dagokionez, teknologia berriekin lanean hasi da Otxandio-ko Udalak. Hala, orain gutxi berriutako webgunean herritarrei hitza eman nahi diete, eta ber-



tan hainbat gune baliatu nahi dituzte. Batetik, astero gutxi gorabehera bizpahiru albiste sartuko dituzte udal webgunean. Bi zinegotzik izango dute horren ardura, baina udal taldeko zein herriko elkarteetako ordezkariak beraien albisteak sartzea proposatu ahal izango diete. Bestetik, urtero udal webgunearen bitartez hiruzpalau inkesta egin nahi dituzte, korapilatsuak edo entitate handiko gaiei buruzkoak batez ere. Horiekin lotuta webgunearen

edozein erabiltzailek iruzkinak egiteko aukera izango du. Eta azkenik, udalak herritarrei gonbidapena egin nahi die <http://www.otxandio.net-en> blog propioak zabaldu eta horietan Otxandioekin lotutako idatziak egiteko; modu horretan, udal webgunean mota askotako iritziak batu eta partekatu nahi dituzte.

Gardentasuna, aldizkari eta webgunearekin

Oraingo udal taldearen ikurra gardentasuna da, eta hala jarraitu dezan batzar zabalak, **Guzurmaiko** udal aldizkaria urtean hiru aldiz argitaratu eta webgune berritua indartu nahi dituzte. Izan ere, udal webgunean dokumentu ofizial eta akta guztiak eskuragarri jarriko dituzte eta tarte bideo albisteak egingo dituzte, non zinegotzi bakoitzak bere batzordearen helburuak zehaztuko ditu, alkateak aurrekontuen irizpidea azalduko du eta beste hainbat.

“

Oraingo udal taldearen ikurra gardentasuna da, eta hala jarraitu dezan batzar zabalak, **Guzurmaiko udal aldizkaria urtean hiru aldiz argitaratu eta webgune berritua indartu nahi dituzte.**

Participación ciudadana

El equipo de gobierno municipal ha diseñado el proyecto Profundizando en Democracia Participativa 2011-2015, y ha definido los tres puntos cardinales de la misma, resaltando que sin todos ellos el objetivo quedaría cojo: participación, transparencia y eficacia.

Comisiones abiertas

En cuanto a la participación orgánica, la de los órganos institucionales, han propuesto crear comisiones abiertas, que podrán ser convocadas por los concejales cuando quieran compartir con los otxandioarras informaciones, así como obtener la aportación de los ciudadanos sobre diversos temas.

Para asegurar logros y no desmotivar a los participantes, se deberán fijar objetivos claros y facilitar medios para obtenerlos. Además, conviene invitar a ciudadanos activos y asociaciones.

Web participativa

En lo que respecta a la participación fuera de los órganos, la recién renovada web municipal (otxandio.net) posibilitará responder a las noticias publicadas, participar en encuestas y se ha invitado a los otxandioarras a abrir blogs particulares donde publicar artículos de opinión.

Por último, han querido destacar que van a seguir primando la gestión transparente, y para ello piensan utilizar la revista Guzurmaiko que se publicará cuatrimestralmente, así como la web municipal.

oreka

metanizazioa

aztergai

Otxandio Udalak azken urteotan erregai fosilekiko dependentzia murriztea du helburu. Bide horretan, Oreaka proiektua lantzen dihardu eta horren baitan biometanizazioaren gaineko hausnarketa eta ikerketa egiten dihardu.

Biometanizazioa bezala ezagutzen den prozesuan biogasa eta konposta lortzen dira, horretarako lehengai gisa materia organikoa (etxeetako hondakinak) eta abeltzaintzako nahiz nekazaritzako hondakinak erabiliz. Sortutako biogasa, errez, elektrizitate eta beroan bihurtu daiteke. Biogasa erretzetik lortutako elektrizitatea sarera sal daiteke, eta beroa, ur sare baten bitartez, eraikinak berotzeko erabili. Konposta, berriz, zelaiak ongi-berritzeko erabil daiteke.

Gure inguruak biogasa ekoizteko dituen aukerak aztertzeke helburuarekin, udalak metanizazioaren inguan ikerketa egiteko eskatu zion Egimen elkarteari. Proiektu honen helburua Behialde abel ustiapenean sortzen diren hondakinei eta herrietan sortzen diren zabor organikoetarako etekinak ateratzeko Otxandio udalerrian erabil daitekeen sistemaren bideragarritasuna aztertzea izan da.

Digestio anaerobiaren onurak

Hondakin organikoetatik energia lortzeko erabiliko den teknologiarik "Digestio anaerobia" deritzo. Prozesu biologiko bat da, non materia organikoa, oxigenorik gabe eta bakterien talde espezifikoen bidez eraginpean, biogasean eta digestatutako hondakinak sortzen diren. Biogasa energia lortzeko erabiltzen da eta, digestatutako hondakinak bezala erabil daiteke, bai era zuzenean edo solido-likido banaketaren prozesuaren eta frakzio

solidoaren estabilizazioaren ondoren, hau da, konpostaje bitartez.

Digestio anaerobiaren onurak honako hauek dira: energia berriztagarria ekoiztea. Biogasa erabiltzen denean fosiletatik datorren energia ordezkatzen delako; berotegi-efektu gas isurketak murrizteko, CH_4 -ren emisio inkontrolatuak murrizten direlako (CH_4 sortzen duen berotegi-efektua CO_2 -rena baino 20 bider handiagoa da). Gainera, CO_2 isurketak ere murrizten dira, energia fosilak ordezkatzen direlako; usain txarren murrizketa garrantzitsua; eta mineralizazioa.

Behialde aztertu


Otxandiotik hiru kilometrotara dagoen Behi Alde behitegia da materia organikoen lehen iturria, 300 hektareetako behitegia. Bere kokapenak bultzatu zuen azterketa hau egitera. Aztertu dituzte, baita ere, herriko zabor organikoak eta baserrietatik datozen beste hondakin batzuk ere. Honako kopuruak identifikatu dituzte: 260 tn urteko zatza,

sei hilabetetan zehar; 110 tn urteko oilo zatza, urtean zehar orekatua; 2.600 tn urteko purina, zortzi hilabetetan zehar; 6.000 tn urteko lasto lehorra; eta 2.400 tn urteko lasto hezea.

Metanizazio unitatea igerileku ondoko industrigune inguruan kokatu daitekeela adostu da. Zalantza da unitatea bost hektarea, hektarea eta erdi edo hektarea bakarreko lurzoruan egitea.

Herritarren kontseiluak, bigarrena

Hiru planta hauek hondakin kopuru ezberdinak jaso eta, ondorioz, elektrizitate eta bero kantitate ezberdinak sortuko lituzkete. Lehenak 145.000 tona jasoko lituzke urteko; bigarrenak 29.900; eta hirugarrenak 17.900. Sortutako elektrizitateari dagokionez, 2.700 kwe, 570 kwe eta 340 kwe izango ziren hurrenez hurren. Hala, herrian urteko honako kopuruak aurreztuko lituzkete beroan: 53.000 euro, 43.000 euro eta 29.000 euro. Herritarren Kontseiluak planta ertainaren alde egin zuen, bigarrenaren alde, alegia.



»IRITZIAK

**Gorka
Bueno**
EHUko
Irakaslea.

**“Biogas-planta
diseinu handiago
baten barruan
kokatu behar da”**

Biogas-plantaren diseinuak, tamainari dagokionez, Otxandioko beharrak hartu behar ditu kontuan. Iraunkortasuna bermatzeko, diseinuak lokala izan behar du. Bideragarritasun ekonomikoa funtsezkoa da, baina helburua ezin da izan etekin ekonomikoa maximizatzea.

Helburua da Otxandion eta inguru hurbilean sortzen diren eta momentuz irtenbide ekologikorik ez duten hondakin organikoak birziklatzea. Otxandion ia 800 behi daude. Urtean, 9.500 tona purin sortzen dute. Herriko hondakin organikoak, berriz, 3.600 tona dira. Baserrietan beste 10.000 tona hondakin sortzen dira, baina gehiena (onena) han bertan birziklatzen da.

Horrela, plantak urtean 10.000 tona baino pixka bat gehiago prozesatzeko gaitasuna izan beharko luke. Horrek ematen du 60-100 kilowatt elektriko eta 70-100 kilowatt termiko instalatzeko, ez gehiago. Eskala txikiko plantak malguagoak dira kudeatzeko, eta herriaren kontrolpean mantentzeko errazagoak. Biogas-planta beste diseinu handiago baten barruan kokatu behar da: atez ateko bilketa selektiboa, bero-sarea eta biomasaren aprobetxamendua.

**Iban
Lizarralde**
Egimen
elkartea.

**“Nik sistema
ahalik eta txi-
kiena garatuko
nuke”**

Aukera onena zein den erabakitze faktore ezberdinak eta horien perimetroak izan behar dira kontuan. Adibidez, ingurumenaren inguruan diagnosa egiterakoan, ezin dugu sortuko den energia bakarrik kontuan izan, logistikaren eragina ere neurtu behar da: gero eta sistema handiagoak, zaborra eta ongarrira urrunagotik garraiatzea dakar. Horregatik, nik sistema ahalik eta txikiena garatuko nuke. Galdera da “ahalik” horren atzean zer dagoen. Ekonomikoki, adibidez, errentagarritasun baten azpitik ez dira inbertsioak sartuko honelako proiektu batetan, maileguak lortzea zailagoa izango da eta diru publikoa lortzeko ate asko jo beharko dira. Hala ere, honelako proiektu batek onura asko ditu ingurumenarekiko, energia autonomiarekiko, lanpostuak sortzeko... Ondorioz, diru publikoa justifikatua egongo zen. Eta zein da ahalik eta sistema txikiena, zeinek beharrezko finantziarioa lortzeko aukera emango lukeen? Tamalez ez dago formula zientifikorik optimo hau kalkulatzeko, asko dependituko du zein aktorearen artean ateratzen den proiektu hau aurrera.

La metanización a estudio

Una de las metas del Ayuntamiento de Otxandio durante estos últimos años está siendo la disminución de la dependencia sobre los combustibles fósiles. En ese camino se adentró mediante el proyecto Oreka y en ese contexto hay que entender el estudio actual sobre la metanización.

Mediante el proceso de biometanización y utilizando materias primas como la materia orgánica procedente de unidades familiares, ganadería o agricultura se consiguen biogas y compost. Asimismo, con el biogas resultante se pueden obtener electricidad y calor; y el compost puede ser utilizado como fertilizante para la tierra.

Cara a analizar las ventajas e inconvenientes de la utilización local de dicho sistema, el Consistorio encargó a la asociación Egimen que hiciera un estudio sobre la biometanización.

La tecnología o proceso biológico utilizado para obtener energía de los residuos orgánicos es denominada Digestión Anaeróbica. La misma tiene muchas ventajas, tales como sustituir a energía procedente de los combustibles fósiles, reducir las emisiones de CO2 y las de efecto invernadero y demás.

Reunión con la Agencia Ura

Ante la preferencia mostrada por el órgano de participación ciudadana “Herritarren Kontseilua” por ahondar en las posibilidades reales de construir una depuradora fundamentada en biodiscos y sistemas ecológicos, el pasado septiembre responsables del Consistorio se reunieron con la Agencia Ura dependiente del Gobierno Vasco para presentar la idea y conocer la predisposición de la agencia cara a su colaboración. Ura vió con buenos ojos la propuesta municipal. No obstante, requirió solicitar un texto de conformidad al Área de Biodiversidad. De la misma manera, hicieron saber que antes de confirmar la posible financiación, el Consistorio deberá presentar un plan económico-financiero del mismo donde se recoja la amortización de las inversiones realizadas mediante la facturación a los ciudadanos.

ura

ura
araztegia

Herritarren Kontseiluan biodisko eta sistema ekologikoetan oinarritutako arazketa sistema eta sistemaren aukeren azterketan saktontzea lehenetsi ondoren, udalak bilera egin zuen iraila bukaeran Eusko Jaurlaritzako Ura agentziarekin araztegi berriaren egokitasunaren eta finantziarioaren inguruan hitz egiteko.

Lehenik eta behin, Ura agentziako teknikariek egokitzat eman zuten udalaren proposamena. Hala ere, sistema naturalek biodibertsitatearen ikuspetik izango luketen eragina neurtzea beharrezko ikusi zuten bai Ura agentziak eta baita udalak ere. Horretarako txosten bat egiteko eskatuko diote Biodibertsitate Sailari.

Bestalde, Ura agentziako ordezkariak jakinarazi zuten inbertsioa tasa bitartez amortizatzeko gai diren instalazioak soilik finantziatzen dituela. Horregatik, geroan Ura agentzian aurkeztuko den eta finantziario hori ziurtatuko duen plan ekonomikofinantzieroa egiteari ekin dio Otxandioko udalak. Bestera esanda, proiektu honek herritarren tasetan izango lukeen eragin zehatzaren aurreikuspenaren azterketa egiteari ekin dio udalak.

Gai horri lotuta, Ura agentziak jakinarazi zuen Arabako ekialdeko herrien arazketa aukeren ikerketa bat egiten ari dela, eta oraindik ez dakiela Otxandiok herri horiekin arazketa azpiegiturak partekatuko dituen edo sistema propio bat izango duen. Ikerketa hori bukatzean, ondorioak ezagutzeko beste bilera bat deitzeko konpromisoa hartu zuen. Bitartean, udalak biodibertsitate txostena eskatu eta inbertsioak amortizatzeko plan ekonomikofinantzieroa bat egiteko konpromisoa hartu zuen.

ekonomia

UDALAREN EGOERA

Erakunde pribatu nahiz publiko guztiak ari dira krisi ekonomikoaren ondorioak jasaten, eta Otxandio Udala ez da horretan salbuespena, nahiz eta beste udal batzuekin alderatuta egoera ekonomikoa ez den txarra. Hala ere, egia da zerga bilketak izandako jaitsierak eta eraikuntzaren sektoreak bizi duen geldiu-neak eragina izan duela Otxandio udalaren diru-kutxan. Hain zuzen ere, zerga gutxiago bildu izanak, diru sarrera eta gastu arrunten arteko aldea murriztu eta udalaren inbertsiorako gaitasuna gutxitu du.


Horren ondorioz, orain diru gutxiago dago finkoak diren ohiko gastuak (langileen soldatak, argiteria publikoa, mantenu lanak...) egin ostean, inbertsio berriak egin ahal izateko.

Arrazoi askok eragin dute egoera hau (ikus eskumako zerrenda) eta esaterako, Otxandio XXI enpresa publikoak dituen partzelak saldu ahala, neurri batean egoera ekonomikoa hobetu egingo da. Desoreka honek epe laburrera udalak inbertsioak egiteko gaitasuna nabarmen baldintzatuko du, eta 2012 behintzat inbertsio gutxiko urtea izango dela aurreikusi dute udaletik.

Udaleko Ogasun batzordeak, egoera hau kontuan hartuta, diru sarrera arruntak handitzeko zer neurri hartu aztertzeaz gain, aipatutako partzelak saldu eta lur aprobetxamenduak gauzatzera bideratuko ditu ahaleginak. Hori horrela izanda, 2013an udala inbertsio berriei aurre egiteko moduan egotea aurreikusten da.

Incapacidad para invertir

La crisis económica ha llegado también a Otxandio, y aunque no haya afectado a este Consistorio tanto como a otros, sí ha hecho mella en el balance de gastos y entradas ordinarios. Por ello, la capacidad de inversión ha quedado muy reducida. La disminución de la recaudación de impuestos, La cantidad a devolver a la Diputación Foral de Bizkaia debido a la bajada de la recaudación de impuestos..., la imposibilidad de vender las parcelas que la empresa pública Otxandio XXI ha sacado al mercado y las deudas contraídas con el Ayuntamiento y aún impagadas por parte de algunas empresas constructoras son algunos de los factores principales. De todas formas, el Consistorio cree que para 2013 estarán en posición para realizar nuevas inversiones.



ERAGILE NAGUSIAK

■ Udalkutxa Bizkaiko Foru Aldundiak udalen finantziatorako daukan fondoa da. Diru bilketak 2009 urtean izan zuen jaitsiera bortitzaren ondorioz, fondo honetan zor garrantzitsu bat sortu da. 2014 urterako zor guztia kitatua egon behar da, eta horretarako udalak urtero diru kopuru bat itzultzea behartuta daude. Otxandio udalaren kasuan, guztira 220.000 € itzultzea tokatzen zaio.

■ Udalak aurreikusi zuen hirigintza aprobetxamenduagatik 237.000 euro jasotzea, baina eraikuntza enpresa horrek ordaintzeko zailtasun ekonomikoak ditu.

■ Otxandio XXI enpresa publikoaren kontuak orekatzeko asmoz, salmentara ateratako bi partzelek (530.000 euroko balioa dute) ez dute oraindik eroslerik izan. Horregatik, 380.000 euroko hipoteka-kreditua eskatu behar izan du udalak.

■ Aurretik finkatutako inbertsioak gauzatu direnez, sarrera eta gastuen arteko desoreka dago, eta 300.000 euroko kreditu kontu bat ireki behar izan du udalak.

Tasak eta zergak

Azaroaren 10ean egindako udaleko osoko bilkuran arau fiskalak aho batez onartu zituzten. Erabakitakoaren arabera, zenbatekoa ehunetan adierazita duten zergak ez dute aldaketarik izango, eta beste arau fiskalak KPIren arabera eguneratuko dira (%2,4).

Udalak eskainitako zerbitzuetan udalari zerbitzu hori ematen dutenek egindako igoera bera ezarriko da.

Salbuespenetako bat trakzio mekanikodun ibilgailuetan emango da: gama altuko ibilgailuen zerga da gehien igoko dena.

KULTURA

»KOORDINAZIO BATZARRA

Herriko eragileen koordinazio batzarra urtarrilean


Udaleko Kultura batzordeak azken hilabeteotan Otxandioko kirol eta kultura taldeekin hainbat batzar egin berri ditu horietako guztien egoeraren eta beharrianen berri zehatza izateko. Aurrekontuak, 2012. urterako antolatuko dituzten ekintza bereziak, agenda kontuak, instalazio eta eraikinen gaineko gorabeherak eta beste horrenbeste hizketa-gai izan dituzte nagusi egindako batzarretan. Era berean, herriko eragile bakoitzak udalarekin dituen harremanak nola hobetu daitezkeen aztertzekeo tartea ere hartu dute batzar horietan guztietan, baita horren aldeko pausuak eman ere.

Ekintzak urtean ondo banatzea

Horretaz gain, hurrengo hilabeteetan, herriko kirol eta kultur taldeen, zein udaleko batzorde ezberdinen artean koordinazio batzarra egiteko konpromisoa hartu dute eragile guztiek. Urtarrilean egingo dituzte eta helburu nagusienetakoa da 2012ko Otxandioko kultura agenda zehaztea, eta ondorioz talde bakoitzak besteen ekintzen berri izanda, bakoitzari dagokion ekintza kulturalak ez gainjartzea eta urtean zehar programazio hori ahalik eta hobeen banatzea.

»NUEVOS CURSOS

Positiva acogida a los cursillos



La oferta de cursos lanzada por el Consistorio ha obtenido una muy buena respuesta por parte de los otxandioarras. Han sido más de 70 personas las que han tomado parte en los cuatro cursos ofertados.

Hace ya varios meses que el Ayuntamiento decidió organizar cuatro cursos de corta duración en lugar de uno solo, y vista la buena respuesta que el cambio ha originado, el ente local piensa dar continuidad a esta estrategia durante los años venideros.

Los cursos de talla y danza del vientre han contado con 20 alumnos cada uno; el de fotografía con 13 y el de manualidades con 15 alumnos, respectivamente.

Encuesta informativa

Por otra parte, la Comisión de Cultura ha preparado un formulario de encuesta que será buzoneado en todos los domicilios de Otxandio. Su fin es conocer qué cursos, charlas, conciertos y demás actividades culturales se deberían organizar y así poder adecuar una oferta en función de las necesidades e inquietudes de los vecinos.

HIRIGINTZA

»UR ANALISIA

Zelaietako araztegiaren matxura eta horren ondorioak

Zelaietako araztegiak matxura garrantzitsua izan zuen udan. Ondorioz ez zuen ura garbitzen, eta errekek kolore iluna eta usaina zituela ikus zitekeen. Hori horrela, udalak urgentziazko interbentzio bat programatu zuen araztegia hustu eta gaizki zeuden elementuak ordezkatzeko. Horretarako, udalak Eusko Jaurlaritzako Ura agentziara jo zuen ur zikinen isurketa zuzenean erreka egiteko baimen eske. Baimen eskaeran, udalak araztegi azken bi ur neurketak zehaztu zituen. Baina, akats baten ondorioz, isurketaren data okerra zehaztu zen.

Akats horrek Ura agentzian harridura piztu zuen, isurketa beraiek uste baino lehenago burutu zelako, eta Ura agentziakoek araztegi ingurura isurketa neurtzera jo zuten. Udalak lasaitasun osoz jokatu zuen, baimen eskaerako datuak ondo zeudelakoan. Baina agentziak egindako neurketak ez ziren bat etorri aurretik zehaztutako balioekin. Hori horrela, udalak araztegi ur analisia egindako enpresak igorritako datuak aztertzeari ekin dio. Tamalez, Eusko Jaurlaritzako Ura agentziak zigor espedientea zabaldu du, eta hori jaso ahala udalak bere jokabidea justifikatzeko aukera izango du.

Batzar informatiboa egin zuten

Errekako kalteak artean harridura eta nahasmena piztu zituen herrian. Horregatik, urriaren 13an udalak herritarrek batzar batera deitu zituen informazioa emateko. Bertan, Santi Uribe alkateak eta Egoitz Mendizabal udal arkitektoak hartu zuten hitza. Interbentzioaren gaineko azalpen teknikoak eta araztegiaren arazoaren jatorri politikoak argitu zituzten. Eta alkateak araztegiaren arazoari behin betiko irtenbidea emateko Otxandioko Udalak duen eta herritarren kontseiluan herritarren babesa izan zuen proposamena ekarri zuen gogora; biodiskoek teknologia eta sistema naturalak uztartzen dituen araztegia hain zuzen ere.

KOMUNIKAZIOA

»WEBGUNEA

‘Otxandio.net’
laster ehuneko
ehunean

Plazagunea enpresak diseinu lanak gara-tuta, udaberri inguruan www.otxandio.net atariaren atal nagusiek argia ikusi zuten proba moduan. Eta hurrengo asteetan webgunea ehuneko ehunean izango da udalaren eta herritarren arteko komunikazio tresna eraginkorra bihurtuz. Osoko bilkuratako aktak, elkarteen zein udal batzordeen agenda, udal zerbitzu eta kontratazioen informazioa eta udal gaien albisteak aurkitu ahal izango dira. Horretaz gain, www.herri-ola.net Herri-Ola egitasmoaren gune berezia ere eguneratua izango da. Bertan, egitasmoaren proiektuen berrikuntzak zabaldu eta eztabaida bultzatuko da.

Bestalde, hurrengo asteetan argia ikusiko duen Otxandioko Turismo webgunean, herriko jaiak, ohitura eta historia, natura eta kultura ondarea, oinez zein bizikletaz egiteko ibilbideak (GPS-rako track-ekin), alojamendu, jatetxe, taberna eta denden zerrenda osatua izango dira eskuragarri.

Herritarrek parte hartzeko gunea

Gainera, www.otxandio.net-en, herritarren kezka eta iritzia jaso ahal izango dira, gutunontziaren tarte zabalduko da, eta herritarrek blogak sortu ahal izango dituzte. Blogak herritarroiekozein gairi buruzko iritzia askatasun osoz emateko aukera ematen dio, elkarbizitza hobetzeko, kultura aberasteko edo arazo sozialei irtenbideak bilatzeko. Horregatik, udalak herritarrei iritzia idazteko bloga zabaltzeko gonbidapena egiten die.

GIZA ESKUBIDEAK

»INDARKERIA SEXISTA

Indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna

Otxandion ere Emakumeenganako Indarkeria Sexistaren Kontrako Eguna aintzat izan dute. Udaltzarak Indarkeria sexistaren kontrako mozioa onartzeaz gain, puntu lilak jarri zituen herritarren eskura. Gainera, gaiaren inguruan eztabaidatzeko baliatu izan zen zineforum baten bitartez. Udal taldeak argi du parekidetasuna lortzearen bidean ezinbestekoa dela herritarren inplikazioa eta sentsibilizazioa. Horregatik, hortaz, datozen hilabeteetan udalerrian antolatuko diren ekintzetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.



»HERRIKO PRESOEN EGOERA

Ramon Aldasoro Magunazaleia:

Castellon II kartzelara urrundu dute. Bisitatzeko zailtasun handiak daude, ez dagoelako nola joan norberaren kotxe pribatuan ez bada. Gainera kartzela 700 metrotako altueran dago eta neguan elurteak aurkitzeko arriskua dago.

Ramon Aldasoro Magunazaleia

CASTELLÓN II-
Centro Penitenciario
Pasaje Mascarrell, acceso
CV- 129 km.5
12140 Albacasser (Castellón)

Iñaki Pujana Alberdi:

Villenako (Alicante) kartzelan dago. Gogoratu Iñakik kondena beteta duela, baina Parot doktrina delakoa ezarrita daukanez, oraindik preso daukatela. Senideek bis a bis bisitatan funtzionarioen ukituak jasan dituztela salatu dute.

Iñaki Pujana Alberdi

Carretera Nacional 330, km 66
03400 Villena (Alicante)

Egoitz Garmendia Vera:

Alcala Mecoko kartzelan dago. Bis a bisak astean zehar izaten dituen, senideek lanean jai eskatu behar izaten dute Egoitz bisitatu ahal izateko.

Funtzionarioek trabak jartzen dizkiote kartzelako ikastaro eta tailerretan parte hartzeko. Ziegan beste bi preso politikorekin batera dago.

Egoitz Garmendia Vera

MADRID II- C. De Cumplimiento
Carretera de Meco, km 5
25570 Alcalá de Henares (Madrid)

Enrike Garate Galarza:

Bois de Arcytik Poyssy-ko kartzelara aldatu dute, Euskal Herritik are eta gehiago urrunduz. Urrundu duten arren, Poyssiko kartzelako bizi baldintzak hobeaok direla ziurtatu du Enrikek.

Enrike Garate Galarza:

PISSY- Maison Centrale
17, Rue de l'Abbaye
78303 Poissy Cédex

Iñaki Garces Beitia:

Zuerako espetxean dago. Soziologia ikastetako egiten ari da UNEDen bitartez. Liburuak eskuratzeko arazoak izan ohi ditu.

Iñaki Garces Beitia

ZUERA- Centro Penitenciario
Carretera Nacional 333, km 539
50298 Zuera (Zaragoza)

BERBA GITXITAN

»EUSKARA

Berbataldeak elkartzten hasi dira

Berbalagun egitasmoak euskaldun zaharrak eta berriak hiruzpalau laguneko taldeetan batzen ditu, elkarrekin euskara praktika dezaten. Taldeak aukeratzen duen orduan, egunean eta giroan batzen dira, astean gutxienez ordu batez euskaraz aritzeko.

Otxandion bi berbatalde osatu dituzte eta martitzenetan batzen dira, 18:00etatik 19:00etara batzuk eta 20:00etatik 21:00etara besteak. Berbatalde gehiago osatzeko asmoa dago, eta goizez ere osatu nahi dira. Aitziber Balantzategi (AEK) da dinamizatzailea eta nonork informazio gehiago jaso edo izena emateko, beragaz harremanetan jarri daiteke.



Berbataldeak osatzen hasteko bilera.

»ALKATETZA

Alkatearen liberazio partziala

Uztailaren 7ko osoko bilkuran, aldeko 7 botorekin eta 2 abstentziorekin, alkatearen 1/3ko liberazio partziala onartu zuen udalbatzak. Alkatearen gutxiengo dedikazioa, lana, udala eta familia uztartzea erraztuko du. Alkateak 1/3ko liberazioa baino askoz dedikazio handiagoa emango dion arren, udal, Diputazio nahiz Eusko Jaularitzako kudeaketei arreta handiagoa eskaini ahal izango dio. Diru ordaina lanean galduko duenaren berdina izango da eta, beraz, jardun profesionalean zuen soldata bera izango du. Udalak eskatzen duen arduraldia kontuan hartuta, gobernu taldeak beharrezkotzat du alkateak liberazio hau egitea.

»ZERBITZUAK

Autobus gehiagoren beharra

Mañari, Izurtza eta Otxandioko udal arduradunek Bizkaiko Foru Aldundira jo dute, Durango eta Gasteiztik joan-etorria egiten duten autobusen zerbitzua handitzea eskatzeko. Bilbon azaldutakoaren arabera, Durango-Gasteiz linea Arabako Aldundiaren esku-mena da eta honek ezin du autobus konpainia behartu ezta beste konpainiarik kontratatu. Horregatik, Mañari, Izurtza, Abadiño eta Legutioko udal arduradunek Bizkaiko eta Arabako aldundiei autobus linea hori diruz lagundu eta orduro autobusak jartzeko hitzarmena egiteko proposamena egin dute. Abenduan bertan horri buruzko batzar gehiago egiteko asmoa zuten aipatutako udalek.

»SALUD

Proyecto del nuevo ambulatorio

El Ayuntamiento ha recibido las siguientes subvenciones para el derribo del viejo cine y construcción del nuevo ambulatorio: 17.342 euros para desarrollo de proyecto de derribo y el derribo del cine; y 41.300 euros para el proyecto de ejecución del ambulatorio. La planta baja del nuevo edificio estaría destinada al ambulatorio en su totalidad (300 m2) y contaría también con espacio para servicio de pediatría. En cuanto a las plantas superiores, el Consistorio baraja la construcción de viviendas tuteladas para personas con bajo-medio grado de discapacidad y/o viviendas de alquiler social. Se prevé derribar el edificio del cine y realizar el proyecto de ejecución en 2012.

“Euskeraz bizi gure dogu!”

Hori izan zen abenduaren 3an, Euskararen Egunean, zabaldutako deiadarrak. Eguerdiko ekitaldiaren ostean, gaztetxoek margotutako murala eskutan hartu zuten bertaratutakoek. Iluntzean Ventos de Saudade taldeak fado emanaldia eskaini zuen, eta Otxandioko euskaldunen danbolinak bueltara jarraitu zuen euskaltasunaren suaren berotan. Datozen asteetan, Euskara Batzordea herriko eragileekin bilduko da 2015era bitartean “Otxandioko euskaldunen mugimenduak” jarraitu beharreko bidea adosteko.



Otxandio
Udala

www.otxandio.net

Astean asteko albisteak, udal batzordeen zein herriko taldeen agenda, momentuko plenoetako aktak, proposamenak burutzeko atala, iritziak plazaratzeko herritarren blogak, udal zerbitzuen informazio osoa...

facebook



Egin zaitez udalaren lagun

bloga



Izan zaitez atariko blogari

ho

herri-ola

www.herri-ola.net

Herri-ola egitasmoaren nondik norako guztiak; egitasmoaren parte diren proiektu denek azken nobedadeekin eta unean uneko gaien eztabaidak sustatuz.

facebook



Egin zaitez herri-olaren lagun

amarauna



Egin zaitez amaraunkide